



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA  
19/02/19

## **Unai Rementeria Bizkaiko Ahaldun Nagusiak gaur egungo Ekarpenen Legearen indarraldia eta funtzionaltasuna defendidu ditu Bizkaiko Batzar Nagusietan**

Unai Rementeria Bizkaiko Ahaldun Nagusiak gaur egungo Ekarpenen Legearen indarraldia defendidu dau Batzar Nagusien aurrean. Lege horrek erreguletan dau hiru lurralde historikoek Euskadiko Autonomia Erkidegoari egin beharreko ekarpena, eta “ereduak funtzionetan dauela” azpimarratu dau. Adierazo dauenez, “Udalek, Foru Aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak behar adinako finantzaketa mailea daukie”. Rementeria Bizkaiko Batzar Nagusietako Iraskunde, Gobernamentu Onerako eta Gardentasunerako Batzordearen aurrera etorri da, Batzarretako EH Bildu taldeak eskatuta, gai horren ganeko informazioa emoteko, eta baita berak eskatuta be, Herri Diru-bideen Euskal Kontseiluaren azkenengo bileraren barri emoteko.

Arantza Urkaregi EH Bilduko bozeroaleak, bere aurreikuspenak kontuan izanda Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak aitatutako Legearen lehenengo zirriborroa noiz jasoko ete dauen galdetu deutso Rementeriari, eta igazko abenduaren 31rako ezarrita egoan epea bete ezin izana eragin daben oztopoak eta gaiztasunak zeintzuk izan diran be galdetu dau. Gai horreei José María Iruarizaga Bizkaiko Ogasun eta Finantza Diputatuak erantzun deutse lehenengo, Ekarpenen Lege barria eukiteko “ez dagola data finkorik ezta ezelango prisarik be” adierazoz. Azaldu dauenez, “Lurralderen batek bere ekarpenen ehuneko hobetu gura badau, beste bat kaltetuta egongo dala esan gura dau, eta horrek ez ditu akordioak errezten”.

EH Bildu ordezten dauen Urkaregik azpimarratu dauenez, “preminazko gaia da, udalen finantzaketea zalantzan dagolako”, eta “herrialde moduan jarduteko” eskatu dau, “herrialdeen arteko gatazkak saihestuz”. Arturo Aldekoak (Talde Mistoa) konfiantza erakutsi dau, hurrengo legealdirako adostasun zabaleko akordio politikoa lortzearen inguruan. Javier Ruizek (Talde Popularra) legearen barriztapena “goitik beherako porrot politikoa” dala esan dau, “alderdi berak gobernetan dituan lau erakunderen artean”.

Eneritz De Madariagak (Podemos Bizkaia) lege horretan zazpi urteko atzerapena eragin daben gaiztasunak kritikau ditu, eta zergaitik ez dagon horren aurkezpenerako prisarik, eta zein dan Bizkaiko Foru Aldundiak eztabaida horretan defendiduten dauen posizioa galdetu dau. Juan Oterminek (Euskal Sozialistak) orain arte egin dan behar “zintzoa eta ona” goraiatu dau, eta garrantzitsuena “gure erakunde errealidadeagaz bat etorriko dan

lege zuzena lortzea” dala azpimarratu dau. Jon Andoni Atutxa Euzko Abertzaleak taldeko bozeroalearen berbetan, “gaia konplexua da ikuspegi teknikitik, eta lurralde eta indar politiko bakoak ikuspegi desbardinak ditu”. “Udalen finantzaketea ez dagola ezelango arriskuan” be adierazo dau, eta euren beharragaz jarraitzera animau ditu zerbitzu teknikoak.

Taldeei erantzunez Bizkaiko Ahaldu Nagusiak esan dauenez, “lurralde batek mahai ganean erespede barriak jarten ez dituan bitartean, legeak indarrean jarraituko dau, eta bere koefizienteak urtero eguneratuko dira, Eustaten datuetan oinarrituta”. Rementeriak defendidu dauenez, “bitartean sistemak funtzionetan jarraitzen dau”, hiru lurraldeek, Udalek eta Eusko Jaurlaritzak behar adinako finantzaketea daukielako.

### **Diru-bideen Euskal Kontseilua**

Unai Rementeria berak eskatuta be etorri da Batzordearen aurrera, joan dan zezeilaren 14an egin zan Diru-bideen Euskal Kontseiluaren azkenengo bileran hartutako akordioen ganeko informazinoa emoteko. Rementeriak zehaztuta aurkeztu ditu lurralde historikoek Eusko Jaurlaritzako gastuei egindako ekarpenak, eta baita 2018. ekitaldiari jagokon doikuntzako funts orokorraren kitapena be.

Ahaldu Nagusiak Bizkaian erregistrau diran zifra egokiak azpimarratu ditu, diru-bilketa fiskalak nabarmen egin dauelako gora, zerga zuzenei zein zeharkakoei jagokenez. 2018an Bizkaiak euki eban diru-bilketea 7.740 milioi eurora heldu zan, 2017an baino %3,2 gehiago, Diru-bideen Euskal Kontseiluak joan dan urrian egin eban aurreikuspena puntu bitan gaindituz. Rementeriak balioan jarri ditu “Bizkaiak euki dauen portaera leiala, Arabagaz eta Gipuzkoagaz erakutsi dauen alkartasuna”, eta horreek lurraldeko kontuen defentseagaz bateragarriak dirala esan dau.

### **Bardintasunerako organoa**

Batzordea Ibone Bengoetxea Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuaren presentziagaz osatu da, Arantza Urkaregik (EH Bildu) Emakumeen eta Gizonen Bardintasunerako Foru Araua beteteko beharrezkoak diran egituren eta baliabideen ganean egin deutson galderari erantzuteko. Bengoetxeak zehaztu dauenez, orain arte Bardintasuneko lau teknikari lanpostu baino ez dira sortu behar izan, eta horreek 2019ko aurrekontuetan aurreikusita dagoz daborduko. “Horreek dira orain arte hauteman diran beharrak, baina behargin beharrak aldi behin eguneratuko dira, Bardintasunerako organoa guztiz operatiboa danean”, esan dau bukatzeko.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

19/02/2019

## **El Diputado General de Bizkaia Unai Rementería defiende la vigencia y funcionalidad de la actual Ley de Aportaciones en las Juntas Generales de Bizkaia**

El Diputado General de Bizkaia Unai Rementería ha defendido hoy ante las Juntas Generales la vigencia de la actual Ley de Aportaciones, que regula la contribución de los tres territorios históricos a los gastos comunes de la Comunidad Autónoma Vasca, destacando que “el modelo funciona”. “Ayuntamientos, Diputaciones Forales y Gobierno Vasco –ha asegurado– cuentan con un nivel de financiación suficiente”. Rementería ha comparecido en la Comisión Institucional, Buen Gobierno y Transparencia de las Juntas Generales de Bizkaia, a petición del grupo juntero EH Bildu, para informar sobre esta cuestión y además a petición propia para dar cuenta de la última reunión del Consejo Vasco de Finanzas.

Arantza Urkaregi, portavoz de EH Bildu, ha preguntado a Rementería cuándo prevé que el Consejo Vasco de Finanzas reciba el borrador de la nueva Ley de Aportaciones y qué obstáculos han impedido cumplir el plazo de presentación del mismo, previsto para el 31 de diciembre de 2018. A estas cuestiones ha respondido en primer lugar José María Iruarrizaga, Diputado de Hacienda y Finanzas de Bizkaia, señalando que “ni hay fecha fija ni existe prisa alguna” para contar con una nueva Ley de Aportaciones. “Si algún territorio quiere mejorar su porcentaje de aportación”, ha explicado, “eso implica que otro sale perjudicado, lo cual dificulta los acuerdos”.

En representación de EH Bildu, Urkaregi ha subrayado que “es un asunto urgente puesto que está en cuestión la financiación municipal, animando a “actuar como país, evitando piques entre herrialdes”. Por su parte, Arturo Aldekoa (Grupo Mixto) ha mostrado su confianza en que se consiga un acuerdo político de amplio consenso en la próxima legislatura. Javier Ruiz (Grupo Popular) ha calificado el intento de renovación de la ley como “un fracaso político en toda regla entre cuatro instituciones gobernadas por el mismo partido”.

Eneritz De Madariaga (Podemos Bizkaia) ha criticado las dificultades que han acarreado un retraso de siete años en esta ley, y ha preguntado por qué no hay premura en su presentación y cuál es la posición que defiende la Diputación Foral de Bizkaia en este debate. Juan Otermin (Socialistas Vascos) ha alabado el trabajo “prudente y bueno” llevado a cabo hasta la fecha y ha subrayado que lo más importante es “lograr una ley

justa y acorde con nuestra realidad institucional”. En opinión de Jon Andoni Atutxa, portavoz de Nacionalistas Vascos, se trata de “una cuestión técnicamente compleja en la que cada territorio e incluso cada fuerza política pueden tener visiones diferentes”. También ha señalado que “la financiación municipal no está en riesgo en ningún caso”, animando a los servicios técnicos a continuar con su trabajo.

En respuesta a los grupos, el Diputado General de Bizkaia ha asegurado que “mientras ningún territorio ponga sobre la mesa nuevos criterios, la ley sigue vigente y sus coeficientes se actualizan todos los años a partir de los datos del Eustat”. Rementeria ha defendido que “entretanto el sistema funciona” porque los tres territorios, los ayuntamientos y el Gobierno Vasco tienen financiación suficiente.

### **Consejo Vasco de Finanzas**

A petición propia, Unai Rementeria ha comparecido también ante la misma Comisión para informar exhaustivamente sobre los acuerdos de la última reunión del Consejo Vasco de Finanzas Públicas, celebrada el pasado 14 de febrero. Rementeria ha presentado en detalle las aportaciones de los territorios históricos a los gastos presupuestarios del Gobierno Vasco así como la liquidación del fondo general de ajuste correspondiente al ejercicio 2018.

El Diputado General ha destacado especialmente las buenas cifras registradas en Bizkaia, con un significativo aumento de la recaudación fiscal tanto en impuestos directos como indirectos. La recaudación en Bizkaia durante 2018 alcanzó los 7.740 millones de euros, un 3,2% más que en 2017 y superando en dos puntos porcentuales la previsión realizada por el Consejo Vasco de Finanzas el pasado mes de octubre. Rementeria ha puesto en valor “el comportamiento leal de Bizkaia, su posición de solidaridad con Araba y Gipuzkoa, compatible con su defensa de las cuentas del territorio”.

### **Órgano para la Igualdad**

La Comisión se ha completado con la presencia de Ibone Bengoetxea, Diputada Foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales, para responder a una pregunta de Arantza Urkaregi (EH Bildu) sobre las estructuras y medios necesarios para cumplir la Norma Foral para la Igualdad de Mujeres y Hombres. Bengoetxea ha precisado que hasta el momento sólo ha sido necesario crear cuatro nuevos puestos de trabajo de técnico o técnica de Igualdad, que ya están contemplados en los presupuestos de 2019. “Éstas son las necesidades que se han detectado hasta ahora, pero las necesidades de personal se actualizarán periódicamente cuando el Órgano para la Igualdad sea plenamente operativo”, ha concluido.